

KOSTU EGITURAK

Gure enpresa abian jarri aurretik, ezinbestekoa da gure gastu eta irabaziak zeintzuk izango diren zehaztea, eta, horrela, gure enpresak emango dizkigun irabaziak nolakoak izango diren ondorioztatu ahal izateko. Horrela, beharko dugun diru mailegua zenbatekoa izango den ere aurreikusi dezakegu, eta ondoren, enpresa martxan jarri. Gure gastuak bi ataletan bereiztea erabaki dugu. Lehenik, enpresaren lehenengo urtean izango ditugun gastuak. Hau da, enpresa abian jartzeko eta hasieran egin beharko dugun inbertsioa. Eta beste aldetik, bigarren urtetik aurrerako urteetako gastuak dira. Gastu hauek, egonkorragoak izango dira, eta hasieran hartutako mailegua ordaindu arte ere gastu garrantzitsu bat izango da.

ENPRESAREN LEHENENGO URTEA			
DIRU SARRERAK	GASTUAK		
Kabinen alokairua: 3€/orduko Gau 1 = 20€ Hilabetero aldakorra (6000 € inguru)	FINKOAK	Eremuaren erreforma 25.000 €	
		Gure soldatak 1.500 € (4 aldiz)	
		Kabinak eraikitzea 14.000 €	
		Web-a sortu 1.000 €	
		Play store + Informatikoa 1.500 € (hilabetero)	
		Garbitzailea 1000 € (hilabetero)	
Publizitatea: 2000 € inguru (hilabetero)	ALDAKORRAK	Argindarra 1500 € (hilabetero)	
Mailegua: 40.000 €		Bestelakoak 500 €	
		Alokairua urteko etekinen %30	
Diru laguntza: 50.000 €			
Aktiboen-salmenta: 30.000 €			
Diru sarrera totala: 216.000 €		Gastu totalak lehenengo urtean:	182.100 €

Irabaziak lehenengo urtean: 33.900€



Gure enpresaren lehenengo urtean, diru-sarrera garrantzitsuenak mailegua, diru-laguntza eta aktiboen salmenta izango dira. Hala ere, beste sarrera batzuk ere edukiko ditugu: publizitatea eta kabinen

alokairua. Eskatuko ditugun diru-laguntzak eta maileguak lehen urte hontako gastu guztiei aurre egiteko dira.

Gastu hauen artean, gastu finkoak eta aldakorrak daude. Finkoen artean, erabiliko dugun eremuaren erreforma, gure eta personalaren soldatak, kabinak eraikitzea eta web-orriaren sorketa daude. Aldiz, aldakorren artean, argindarragatik hilabetero ordainduko dugun dirua eta gure urteko etekinaren %30a aireportuari alokairu bezala ordaintzea daude. Gainera, 500€ bestelakoetan gastatuko ditugu.



Beraz, lehenengo urtean espero dugun diru sarrera totala 216.000 €-koa da, eta gastatuko duguna 182.100€ direnez, espero dugun etekina 33.900€-koa da.

ENPRESAREN ONDORENGO URTEAK		
DIRU SARRERAK	GASTUAK	
Kabinen alokairua: 3€/orduko Gau 1 = 20€ Hilabetero aldakorra (8000 € inguru)	FINKOAK	Mailegua itzuli 44.000€ (lehenengo urtea)
		Gure soldatak 2.000 € (4 aldiz)
Publizitatea: 5000€ inguru (hilabetero)		Play store + Informatikoa 1.500 € (hilabetero)

		Garbitzailea 1000 € (hilabetero)
Aktiboen-salmenta: 50.000 €	ALDAKORRAK	Argindarra 2000 € (hilabetero)
		Bestelakoak 500 €
		Alokairua urteko etekinen %30
Diru sarrera totala urtero: 204.000 €	Gastu totalak bigarren urtean:	236.000 €
	Hurrengo urteetan:	192.000 €
Irabazi totalak bigarren urtean:	-32.000 € (lehenengo urteko irabaziekin ordaindu dezakegu)	
Hurrengo urteetan:	12.000 €	

Bigarren urtea bukatzerakoan gure enpresa zorretan egongo da, baina lehenengo urtean lortutako etekinekin ordainduko dugu zor hori. Hirugarren urtea eta gero, gure enpresak 12.000 €-ko etekina lortuko du urtero, diru hori berriro inbertituko dugu gure enpresan, horrela kabina gehiago sortuko ditugu, aireportu ezberdinetan.



Kabina berri hauek sortzeak, gastu berriak ekarriko ditu, baina kabina gehiago izateak ere diru sarrera handiagotzea ekarriko du, beraz, azken finean gure irabaziak handitu egingo dira, gure enpresarekin batera.

Diru sarrerei dagokionez, etekinak altuagoak izango dira lehenengo urtearekin alderatuz, izan ere, jendea ezagutzen gaitu eta jende gehiago etorriko da gure kabinetara. Horregatik, alokairutik lortuko ditugun etekinak altuagoak izango dira eta jende gehiago etorriko denez publizitatearekin lortuko dugun kapitala handiago izango da ere. Beraz, nahiz eta bigarren urteko diru sarrera baxuagoa izan lehenengo urtekoa baino, lehenengo urteari mailegua eta diru-laguntza kendu behar zaio.

Beste aldetik, gastuak ugariak izango dira, eta mota ezberdinetakoak dira. Hasteko, hilabetero eta urtero gastu finko batzuk izango ditugu, hauek, garbitzailearen soldata, informatikoaren soldata, bigarren urtearen kasuan, mailegua itzultzearen kostua... Horretaz gaiz, gastu aldakorrak ere izango ditugu, hauek dira elektrizitatea, bestelako ezusteko gastuak (aberia bat edo kabinetan) eta urtero aireportuari ordaindu beharko diogun alokairua. Gastu hauek zenbatekoak izango diren ondorioztatzeko gai gara, baina ez zehazki, izan ere, elektrizitatearen gastua ezberdina izan daiteke hilabete batean edo beste batean, edo urte bateko etekinak beste batekoak baina handiagoak izatea, eta ondorioz aireportuari alokairuagarengatik gehiago ordaindu behar izatea.

Beraz, laburbilduz, lehengo urteetan etekin ekonomikoak lortuko ditugula aurreikusitakoak izango dira, eta kontuan izanda enpresa sortu berria izango dela, hauek ondorio oso positiboak dira. Gainera, lehen urteetan lortuko dugun etekin ekonomiko hori denboraren baitan eta gure enpresa eratzen eta handitzen joan heinean, are eta handiagoa izango da, diru gehiago irabaziko dugu, eta beti izango dugu gure enpresa garatzeko eta eraldatzeko aukera, etorkizunerako inbertsioak egiteko aukera. Beraz, gure enpresak etorkizun on bat izango duela uste dugu, eta ekonomikoki oso establea eta errentagarria izango dela.